

INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA HOBEA EMATEKO

Erakundeen arteko Koordinaziorako Urola Garaiko Mankomunitatearen I. Protokoloa

2022AN BERRIKUSIA ETA EGUNERATUA

Edukia

SARRERA	3
ZIOEN AZALPENA	5
ETA HAU ERABAKI DA:	7
1. LEGE-ESPARRUA	9
2. TERMINOLOGIA	12
3. LAGUNTZAREN ETA ESKU-HARTZEAREN PRINTZPIO GIDARIAK	14
4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN KASUETARAKO PROZEDURAK UROLA GARAIA	18
4.1. Sarrera-puntuak: sarbideak eta detekzio-zerbitzuak	18
4.2. ESKU-HARTZEAREN EZAUGARRIAK	19
4.3. LARRIALDIKO ARRETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN KASUETAN.....	21
4.3.1. Larrialdian esku hartzeko prozesuan emakumeari lagun egitea	22
4.3.2. Larrialdietako bizitokia	23
4.3.3. Adingabeentzako arreta	24
4.3.4. Informazioa, aholkularitza eta bideratzea	24
4.4. LEHENTASUNEZKO ARRETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN KASUETAN.....	26
4.5. ARRETA SEXU-ERASOEN KASUETAN	28
4.5.1. Gertatu berriak diren sexu-erasoen aurreko arreta.....	28
4.5.2. Gertatu berriak ez diren sexu-erasoen aurreko arreta	29
5. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA	31
6. UDALEN ERANTZUN INSTITUZIONALEI BURUZ	33
6.1. ERANTZUN PUBLIKOAREN HELBURUAK	33
6.2. ERAKUNDEEN ERANTZUN PUBLIKOAREN ANTOLAKETA: KASUA EZAGUTZEN DA	34
6.3. ERAKUNDEEN ERANTZUN PUBLIKOAREN ANTOLAKETA: KOORDINAZIO-MEKANISMOAK AKTIBATZEN DIRA	36
6.4. ERANTZUN PUBLIKO INSTITUZIONALA ANTOLATZEA: JARDUERA INSTITUZIONALAK ANTOLATU ETA GAUZATZEN DIRA	37
6.5. ERAKUNDEEN ERANTZUNAREN JARRAIPENA	45
I. ERANSKINA. 2013ko maiatzeko Erakundearen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordearen Akordioa. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondoriozko heriotzen aurrean jarduteko prozedura	47
II. ERANSKINA. ZERBITZU BAKOITZEKO ARDURADUNEN DIREKTORIOA	49
III. ERANSKINA FORU- ETA AUTONOMIA-BALIABIDEAK	55
IV. ERANSKINA DATU PERTSONALAK ERABILTZEKO INFORMAZIO- ETA ADOSTASUN-AKTA. ERTZAINZA	57
V. ERANSKINA. ACTA DE CONSENTIMIENTO DE CESIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL	58

SARRERA

Genero-indarkeriaren eta Sexu-erasoen Biktima diren Emakumeei Arreta Hobe Emateko Erakundeen arteko Koordinaziorako Urola Garaiko Mankomunitatearen I. Protokoloa 2012an sinatu zuten Mankomunitateko zenbait erakundek eta arreta-zerbitzu publikok.¹ Hala, bigarren ebaluazio hau sinadura horren ondoren egindako berrikuspen garrantzitsu bat da; izan ere, helburu nagusia da protokoloa egokitzea azken urteotan gizartean eta erakundeetan indarkeriaren testuinguruan izan diren aldaketetara. Gainera, ahalegina egingo da emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasu guztiak artatzeko, horretarako dauden baliabideen bidez.

Aipatzekoak dira azken urteotan indarkeria matxistaren esparruan izan diren lege-eguneraketak. Hain zuzen ere, gaur egungo lege-esparruan *martxoaren 3ko 1/2022 Legea dugu, Emakumeen eta Gizonen Belduntasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duena*. Lege horretan emakumeen aurkako indarkeria matxista jorratzen da. Hala, indarkeria matxista jotzen da emakume izate hutsagatik emakumeei zuzentzen zaiena, haurrak, nerabeak eta makume transexualak barne.

Eguneraketa honetan aintzat hartu beharreko beste lege garrantzitsu bat *Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa* izango litzateke. Lege horretan, besteak beste, bi berrikuntza nagusi nabarmentzen dira: botere publikoei debekatu egiten zaie GAsa (Gurasoen Alienazioaren Sindromea) baliatzea, eta indarkeria bikarioa ere genero-indarkeriatzat bezala hartzen da.

Azkenik, Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa dugu, zeinak sexu-indarkeriaren biktimak artatzeko proposamenak jasotzen baititu.

Legearen arloko eguneraketak egiteaz gain, protokoloa gaurkotzearen xedea honako hau izan da: indarkeria matxistaren aurrean, protokolora atxikitako arreta-zerbitzu publikoen esku-hartzea eta koordinazioa hobetzeko tresna izatea. Aldi berean, protokolo hori erakundeen arteko koordinazio-protokoloa izan dadila nahi da, non erakundeek eta zerbitzuek zeharka txertatuko baitituzte biktimentzat beharrezkoak diren erreparazio-neurriak, indarkeriatik irteteko fase guztietan.

Ebaluazioan zehar **bildu diren proposamenetan**, familia barruko indarkerian sakontzeko beharra **jaso** da, eta, batez ere, amen aurkako erasoen testuinguruan, arreta-zerbitzuek horrelako kasu ugari antzematen baitituzte Urola Garaiko Mankomunitatean. Ebaluazioan,

¹Osakidetza, Ertzaintza, Urola Garaiko Mankomunitatea eta Urretxu, Legazpi, Zumarraga eta Ezkio-Itsasoko udalak.

bestalde, zaugarriagoak izan daitezkeen emakumeen kolektiboak nabarmentzen dira, hala nola egoera irregularrean dauden eta zaintza-lanetan eta etxeko lanetan aritzen diren emakume migratuak. Zenbait zerbitzuri emakume horiek jasaten dituzten indarkeria matxisten kasu ugari iritsi zaizkie.

Era berean, eta protokolo hau indarkeria matxisten biktima diren emakumeei zuzenduta dagoen arren, garrantzitsua da kontuan hartzea indarkeria matxistak, bere osotasunean, beste indarkeria batzuk ere barne hartzen dituela, hala nola LGTBQIA+ kolektiboak pairatzen dituenak. Ildo horretan, indarkeria horiei aurre egingo dieten mekanismoak txertatzeko beharra planteatzen da, bai eta langileei prestakuntza espezifiko ematekoa ere, aurrerago indarkeria matxistaren biktima horiei egokitu ahal izateko protokolo hau.


Azkenik, eguneraketan, emakume biktimen bizipenak eta haien ekarpenak ere aintzat hartuko dira. Horrela, eguneraketa honen bidez, emakumeen arretan aurrera egin nahi da, horretarako estrategia, tresna eta koordinazio-modu bateratuak sortuta.

2022ko urria

ZIOEN AZALPENA

- Emakumeen aurkako indarkeria matxista **emakume izate hutsagatik zuzentzen zaie emakumeei**, haien portaerak eta adierazpenak edozein direla ere, eta **giza eskubideen urraketa** larria da.
- Indarkeria sexistak botere-harreman sozialak erreproduzitzen ditu; ondorioz, emakumeen eta gizonen arteko erlazioetan ere bere horretan irauten du **desberdintasun hierarkikoak**, eta emakumeak mendekotasun-egoeran geratzen dira.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistak, bestalde, **herritar guztiei eragiten die**. Biktimen gertukoei (lagunak, senideak, bikotekide berriak, etab.), auzokoei eta herritar guztiei. Estrategietan barne hartu behar dira indarkeriaren ondorioak bizi dituzten pertsona horiek ere.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxista **osasun publikoko arazo** bat da. Izan ere, biktimei eragindako kalteak sufrimendu edo galera fisiko, sexual, psikologiko eta sozialak dakartzate, baita galera sozioekonomiko edo ondarezkoak ere, eta, horren guztiaren ondorioz, okerrera egiten du indarkeria matxistaren biktimen osasunak. Biktimen barruan sartzen dira **zuzeneko biktimak**, indarkeria horren eraginpean dauden zeharkako biktimak eta biktima bikarioak.
- **Nagusi den sexu/genero/sexualitate-sistema bitarrera** egokitzen ez den edo sistema horrekin bat ez datorren moduan portatzen edo adierazten den pertsona orori ere zuzentzen zaio indarkeria matxista; esate baterako, LGTBQ+ kolektiboetako kideei.
- Protokolo honek etengabeko hobekuntzarako duen bokazioa azpimarratu nahi da; izan ere, ez da dokumentu itxia. Aitzitik, protokoloa **egokitu egingo da**, haren jarraipena egiteko prestatu diren espazioetan **antzemandako beharren arabera**.

Biktimei eta bizirik irten direnei arreta emateko politiketan, jada kontuan hartzen zen emakumeen aurkako indarkeria matxista hainbat modutara eta hainbat ekintzaren bidez gauzatzen dela; halere, nahitaezkoa da arlo guztietan egitea prebentzio-politikak:



Protokolo honek kontuan hartzen du emakumeen aurkako indarkeria matxistaren definizioa. Hori egiteak zabaldu egiten du indarkeriari begiratzeko modua, eta erakunde sinatzaile guztiak konprometitzen ditu beren arreta-sistemak egokitzea, lege-esparruan jasotzen diren indarkeriei erantzun diezaieten.

ETA HAU ERABAKI DA:

LEHENA: Eskualdeko erakunde sinatzaileek –Urola Garaiko Mankomunitatea, Urretxuko Udala, Legazpiko Udala, Zumarragako Udala, Ezkio-Itsasoko Udala, Ertzaintza eta Osakidetza– konpromisoa berritu dute laguntza eskatzen duten emakumeen arreta hobetuko duen tokiko koordinazio-protokolo bat adosteko; arreta hori Urola Garaiko Mankomunitatean bildutako lau udalerri hauen eremuan bizi diren emakumeei zuzentzen zaie: Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga.

BIGARRENA: Erakunde horiek erabaki dute protokoloaren mahaiak hasitako jarduerarekin jarraituko dutela. Mahai horren ardura izango da lege-mailako aldaketen jarraipena egitea; bereziki, honako lege hauen jarraipena egingo da: martxoaren 3ko 1/2022 Legea dugu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duena, lege horretan emakumeen aurkako indarkeria matxista jorratzen da; 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka erabat babesteari buruzkoa; eta 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa. Horrela, prozedurak lege-esparru berrira egokituko dira.

HIRUGARRENA: Emakumeen aurkako indarkeria matxista hobeto ulertzea ahalbidetuko duten prestakuntza-planak bultzatuko dituzte. Zeregin horretan, aipamen berezia egingo zaie koordinazio-protokoloan jasotako jarraibideei, zeinak erakunde sinatzaileetako kide diren edo haien mende dauden profesionalei berriaz zuzenduak baitira.

LAUGARRENA: Protokoloaren mahaian lan-plan bat eratuko da, honako helburu hauek erdiesteko:

- a) Sei hilean behin koordinazio teknikoko mahaian parte hartzea. Mahai horrek protokoloaren jarraipena egingo du eta haren funtzionamendua ebaluatuko du.
- b) Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuetako prozedurak eta jarduerak berrikustea.
- c) Orain arte aintzat hartu ez diren forma eta eremuetan Urola Garaiko Mankomunitatean emakumeen aurka izan diren indarkeria matxistaren kasuetan zer prozedura erabili diren eta zer jarduketa gauzatu diren berrikustea.
- d) Koordinatzeko moduak diseinatzea udalerriko beste eragile batzuekin, bai eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Ikuskaritzako teknikariekin ere, hura protokoloaren mahaian sartuta edo adosten diren beste modalitate batzuen bidez.
- e) Protokoloa eguneratu dela helaraztea erakunde sinatzaileetako langileei.

BOSGARRENA: Berdintasun Zerbitzuak datu-base estatistiko bat egingo du, zerbitzuek emakume artatuen datu estatistikoak partekatu ahal izan ditzaten. Horrela, zerbitzu horiek

aukera izango dute jakiteko eskualdeko emakumeek zer indarkeria-mota jasaten duten eta zer ibilbide egiten duten indarkeria horretatik irteteko.

SEIGARRENA: Koordinazio-guneak sustatuko dira gizarte-zerbitzuen arloan eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duten organoen artean, errazagoa izan dadin arreta-ereduak batera definitzea, esku-hartzean genero-ikuspegia txertatzea eta arreta hobetzen lagunduko duten lankidetza-mekanismo egonkorak sortzea.²

ZAZPIGARRENA: Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea, hari aurre egitea, erreparazioa eta indarkeria hori desagerraraztea helburu duten politikek berdintasun-politiken barruan egon behar dute, eta EAEko administrazio publikoetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duten organoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, gidaritza eta koordinazio orokorreko zereginak bete behar dituzte.

² 1/2022 Legea, 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duena.

1. LEGE-ESPARRUA

Indarkeria matxista mota horiek ezagutzeko eta, indarkeria matxistaren salaketa publikoaren arloan, EAEko botere publikoen jarduketa zehazten duten eragileen arteko koordinazioa hobetzeko, lege hauek hartu behar dira kontuan:

Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan:

- a) 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu askatasunaren berme integralari buruzkoa.
- b) 1/2022 Legea, 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duena.
- c) 9/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko presako neurriena.
- d) 1051/2013 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, Autonomia pertsonalerako eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko sistemaren prestazioak arautzen dituen (alegia, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako prestazioak).
- e) Hitzarmena, Europako Kontseiluarena, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitu eta haiei aurre egitekoa (Istanbulgo Protokoloa), zeina Espainiako estatuak 2014ko apirilaren 11n berretsi baitzuen eta indarrean baitago 2014ko abuztuaren 1etik.
- f) 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. (Gipuzkoa).
- g) 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.

Adierazitako legeez gainera, emakume atzeritarren aurkako indarkeriaren arloan, beste lege hauek daude:

- a) 240/2007 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarrak eta Europako Esparru Ekonomikorako Akordioan zehaztutako beste estatu batzuetakoak Espainian sartu, aske ibili eta bizitzeari buruzkoa.

- b) 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua, apirilaren 20ko 57/2011 Errege Dekretuak onartua.
- c) 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, Atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa.

Adingabeen babesaren eremuan:

- a) 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka erabat babesteari buruzkoa.
- b) 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoa. Lege horren azken xedapenetatik hirugarrenak aldatu egiten du 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.

c) **Datuen babesaren** arloan:

- a) EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016/679 (EB)

ERREGELAMENDUA, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena; 2016ko maiatzaren 25ean jarri zen indarrean, eta 2018ko maiatzaren 25etik aurrera nahitaez aplikatzekoa da.

- b) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babestekoa.

- c) 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babestekoa.

Lege-esparru honen arabera, batez ere abenduaren 28ko Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoa ezarritakoarekin bat eginez, bikotekideen edo bikotekide ohien eskutik zuzeneko indarkeria jasan duten **emakumeen eskubideak** ezartzen dira: Honako hurrenkera honetan aipatzen dira salaketa publikoen tratamenduarekin lotutako eskubideak:

- I. Emakume atzeritarren eskubideak (17.1 art.)
- II. Informazio-eskubidea (18. art.)
- III. Laguntza sozial osoa jasotzeko eskubidea (19. art.)
- IV. Laguntza juridiko doako, berehalako eta espezializatua jasotzeko eskubidea (20. art.)
- V. Laneko eskubideak, eta Gizarte Segurantzako prestazioak jasotzeko eskubidea (21., 22. eta 23. art.)
- VI. Eskubide ekonomikoak (27. art.)

- VII. Babes ofizialeko pisuetan eta zahar-etxeetan sartzeko lehentasuna (28. art.)
- VIII. Seme-alabak berehala eskolaratzeko eskubidea (5. art. eta hamazazpigarren xedapen gehigarria)

Badira delituaren biktima gisa aitortzen zaizkien beste eskubide batzuk ere: \ Salaketa jartzeko eskubidea.

- ✓ Babes-agindua eskatzeko eskubidea (Etxeko indarkeria jasan duten biktimen babes-agindua arautzen duen ekainaren 31ko 27/2003 Legeak jasotzen du eskubide hori).
- ✓ Erasotzailearen aurrean ez deklaratzeko eta bere segurtasuna eta ongizate emozionala bermatuko duten bitarteko guztiak erabiltzeko eskubidea.
- ✓ Prozedura penalaren parte izateko eskubidea.
- ✓ Lehengoratzeko, sortutako minaren erreparaziorako eta eragindako kalteagatik indemnizazio bat jasotzeko eskubidea.
- ✓ Jarduketa judizialei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
- ✓ Duintasuna eta intimitatea babesteko eskubidea.
- ✓ Delituen biktimentzako laguntzak.

Koordinazio-mahaiaren ardura izango da eguneratuta edukitzea emakumeekin lotutako legeen eta eskubideen esparrua.

2. TERMINOLOGIA

Emakumeen aurkako indarkeria matxista: emakumeen eta gizonen artean dagoen hierarkia sozialean oinarritutako indarkeriazko kontrol-adierazpen eta botere-erabilera guztiak, hau da, "maskulinitasunak" "femeninitasunaren" aurrean duen ustezko nagusitasunean oinarritutako indarkeriazko jokabide guztiak.

1/2022 Legeak, 4/2005 Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duenak zabaldu egiten du biktima kontzeptua:

*Honako hauek emakumeen aurkako **indarkeria matxistatzat jotzen dira**: bikotekidearen edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria, familia barrukoa, sexu-indarkeria, feminizazioa, emakumeen eta nesken salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, nahitaezko ezkontzak eta beste praktika tradizional kaltegarri batzuk, derri-gortzea edo askatasun-gabetze arbitrarioa, tortura, indarkeria instituzionala, jazarpena, genero-indarkeria politikoa, indarkeria digitala eta sare sozialetako indarkeria, indarkeria obstetrika, sexu- eta ugalketa-eskubideen urraketa, bai eta emakumeen eta neskatuen duintasuna, integritatea edo askatasuna urratzen duen edo urratu dezakeen beste edozein indarkeria-mota ere, nazioarteko itunetan, Espainiako Zigor Kodean edo Estatuko edo Autonomia Erkidegoko araudian jasota badago. Berdin dio zein eremu publiko edo pribatutan gertatzen den hori guztia: familia-, lan-, hezkuntza-, osasun-, kirol- eta komunitate-eremuan, komunikabideetan, aisialdi- eta jai-guneetan, ingurune birtualean eta abar.*

Era berean, emakumeen aurkako indarkeria matxistatzat hartzen da biktimak babesten dituzten pertsonen aurka zuzendutako indarkeria, bai eta haren gertukoaren edo inguru afektiboaren aurkakoa ere, bereziki seme-alaben edo beste senide batzuen aurka zuzendutakoa, emakumea atsekabetzeko baliatzen dena.

Indarkeria horiei aurre egiteko modua planteatzea nahitaezkoa denez, jarraian, erreferentzia-esparru bat aurkeztzen da, bai indarkeria matxista guztiak ezagutu ahal izateko, bai udal-zerbitzuek haiei aurre egin ahal izateko.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eremuak

Bikotearen eremua (genero-indarkeria³), familia-eremua (etxeko indarkeria), lana, eskola, espazio publikoak eta aisialdikoak, kirolguneak, eremu kulturalak, birtualak, etab.

Formei dagokienez, honako hauek bereizten dira:

- **Tratu txar fisikoa.** Tratu txar mota horrek kalte egiten dio biktimaren integritate fisikoari edo hura arriskuan jartzen du, nahitako eraso edo eraso errepikakorren bidez.
- **Tratu txar psikologikoa edo emozionala.** Emakumearen ekintzak, portaerak, jokabideak, sinesmenak eta erabakiak deuseztatzea, degradatzea edo kontrolatzea helburu duten egintzak edo ez-egiteak dira.
- **Tratu txar ekonomikoak.** Diruarekin, ondasun komunekin, lanarekin, pentsioekin eta abarrekin zerikusia duten bizitzako alderdiei dagokienez emakumeak egiten dituen ekintzak, dituen portaerak eta hartzen dituen erabakiak kontrolatzeko egintzak edo ez-egiteak dira.
- **Tratu txar soziala.** Tratu txarrak jasaten dituen emakumearen isolamenduan datza: gizarte-harremanak kentzen zaizkio, familiarengandik edo lagunengandik urruntzen da edo haien aurrean umiliatzen zaio.
- **Indarkeria bikarioa:** Indarkeria beste pertsona batzuen aurka baliatzen da, batez ere seme-alaben aurka, baina bikotekide berrien, anai-arreben eta abarren aurka ere balia daiteke, baita animalien aurka ere. Indarkeria horren helburua da zuzeneko biktimari, hau da, emakumeari, kalte handiagoa egitea.
- **Sexu-indarkeria:** Emakume baten aurka zuzendutako sexu-portaera oro.

Indarkeria **bikote heterosexualaren harremanaren testuinguruan** gertatzen bada, definizio hau erabiliko da:

- ✓ **Genero-indarkeria:** Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko Lege Organikoaren (BOE, 2004ko abenduaren 29koa) definizioari erreferentzia egiten zaionean: "indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo askatasun-kentze arbitrarioa ere, indarkeria hori emakumeen aurka erabiltzen dutenean haien ezkontide diren edo izan diren gizonak, edo haiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan".

³ Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko Lege Organikoa

3. LAGUNTZAREN ETA ESKU-HARTZEAREN PRINTZPIO GIDARIAK

Indarkeria matxistaren biktima izan eta protokolo hau sinatu duten zerbitzuetara jotzen duten emakume guztiek harrera egin dieten langileen arreta jasoko dute esku-hartzeak irauten duen bitartean. Horretarako, printzipio gidari hauek hartuko dira kontuan:

Indarkeriarik gabeko bizitzak	Lehentasuna Berdintasuna Emakume guztientzako arreta Laguntza osoa eta pertsonalizatua
Segurtasuna eta babesa	Birbiktimizazioa saihestea Datuen babesa
Ahalduntzea eta erreparazioa	Ahalduntzea eta normalizazioa Erreparazio osoa
Adingabeak	Adingabeen interesaren defentsa

- **Lehentasuna.** Berehala artatuko da edozein indarkeria matxistaren biktima den emakumea. Zerbitzua emakume hori dagoen lekura desplazatu ahal izango da. Emakumea lehenik artatu duen zerbitzuak gainerako udal-zerbitzuekin koordinatutako jarduketa eskainiko dio. Lehentasun hori, lehen arretan ez ezik, emakumeen integritate fisikoa eta psikologikoa arriskuan egon daitezkeen uneetan ere gauzatuko da.
- **Berdintasuna:** Biktima guztiei arreta bermatu beharko zaie, inolako diskriminaziorik egin gabe honako arrazoi hauengatik: egoera zibila, sexu-orientazioa, adina, sinesmena edo ideologia, gutxiengo etniko, nazional edo linguistiko bateko kide izatea, edo maila ekonomiko jakin bat edukitzea, desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsozialen bat izatea edo bestelako edozein egoera pertsonal edo sozial bizitzea. Era berean, beren inguruabar pertsonal eta sozialak direla-eta laguntza osoa eskuratzeko zailtasun handiagoa duten biktimen kasuan, beharrezko neurriak hartuko dira emakume horiek bermatua izan dezaten beren eskubideak benetan baliatu ahal izango dituztela; hala, arreta berezia jarriko zaie desgaitasunen bat duten emakumeei eta emakume

migratueei, haien administrazio-egoera edozein dela ere, eta udalaz gaindiko baliabideetara bideratuko dira, beharrezkoa izanez gero.


Bereziki, desgaitasunen bat duten emakumeek informazioa eta baliabideak eskuratzeko duten eskubidea berma dadin, kasuan kasuko egokitzapenak egin beharko dira: garraiorako laguntzak, laguntzaileak, zeinu-hizkuntzako interpreteak, braillez idatzitako dokumentuak, komunikazio handigarria, etab.

Era berean, neurriak hartuko dira komunikazio-hizkuntzatzat gaztelania edo euskara ez duten emakumeen hizkuntza-oztopoak gainditzeko. Emakume horiei gogoraraziko zaie garrantzitsua dela erroldatze-eskaera egitea gizarte-babeseko sarearen oinarritzko prestazioak eskuratzeko.

- **Emakume guztientzako arreta:** protokolo hau sinatu duten erakundeek konpromisoa hartu dute, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeari jarraikiz, beren burua emakume gisa identifikatzen duten guztiak indarkeria matxistaren biktima gisa artatzeko. Beraz, bermatuko da indarkeria matxistaren biktima diren emakume transexualek sarbidea dutela zerbitzuetara, eta egiaztatuko da haien eskubideak errespetatzen direla. Garrantzitsua da kontuan hartzea emakume transexualen aurkako indarkeria ez dela beti bikotearen eremuan gertatzen; izan ere, kolektibo hori gorroto-delituen itu izan ohi da maiz, eta, beraz, ahalegina egingo da arreta integrala emateko, haien berezitasunak aintzat hartuta.
- **Laguntza integrala eta pertsonalizatua:** garrantzitsua da kontuan hartzea kasu bakoitzaren alderdi interseksionalak: jasandako indarkeria-mota, indarkeria horren iraupena, biktimaren adina, jatorria, inguruaren babesa edo indarkeriatik ateratzen laguntzen duten beste alderdi batzuk. Kontuan hartu behar da beti ez dela ezinbestekoa salaketa jartzea biktimak sarbidea izan dezan eskubidez dagozkion baliabide eta zerbitzuetara. Beraz, emakumearekin batera, haren premien balorazioa egingo da, eta bide judizialari ekiteak ekar diezazkiokeen abantailak eta desabantailak baloratuko dira.
- **Birbiktimizazioa saihestea:** Esku-hartzearen lehentasunezko helburu bat birbiktimizazioa ekiditea denez, erakundeen indarkeria saihesten saiatuko gara. Beraz, zerbitzuek ondo koordinatuta egon behar dute biktimari behin eta berriz ez kontrarazteko zer gertatu den. Bestalde, biktimari arreta ematean, modu argian azaldu behar zaio prozesua,

azalpenak biktimaren ezaugarrietara egokituta; epaitu gabe entzun behar da, fokua pertsonarengan eta haren erabakietan jarrita.

- **Ahalduntzetik erreparatzeko printzipioa:** Bizirik atera diren biktimei arreta ematen dieten zerbitzu publikoek maila guztietan jasandako kalteari **erantzuteko ekintzak gauzatu behar dituzte**. Ildo horretan, bermatu behar da indarkeriaren ondorioak artatzen direla, baita eskubideen urraketa ahalbidetu duten baldintzak ez errepikatzeko neurriak hartu direla ere.⁴
- **Datuen babesa:** Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak (DPBetaEDBL) xedatutakoaren arabera tratatuko dira bildutako datuak. Lege horretan, administrazio publikoek datuak lagatzean bete behar dituzten baldintzak zehazten dira:



Idatziz edo ahoz, administrazio guztiek konpromiso hauek hartzen dituzte:



- **Ahalduntzea eta normalizazioa:** biktimari emango zaion arreta erreparazioan oinarrituko da, eta, aldi berean, jasandako indarkeriatik babesteko baliabideak eta espazioak eskainiko zaizkio. Kasu horretan, ahalduntze-prozesu bati ekingo zaio.

⁴ Erreparazio-neurriak txertatzeari buruz gehiago jakiteko, kontsultatu Eudelen gida hau: Indarkeria matxistaren biktimak erreparatzeko tokiko ekintzak https://www.eudel.eus/es/file/libro_ficheros/gida_1

Krisialdietan eustea izango da helburua, edo laguntza handiagoa emango da errekupeazio-prozesuetan.

- **Adingabeen interesa defendatzea:** kontuan izango dira artatzen den emakumearen ardurapean dauden adingabeak zaintzeko eta babesteko hartu behar diren neurriak. Protokolo honek aintzat hartzen du ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka erabat babesteari buruzkoa, eta, beraz, indarkeriaren zuzeneko biktimatzat hartzen dira emakumeen ardurapeko adingabeak.


Funtsezkoa da protokoloa sinatu duten erakundeek emakumeari galdetzea ea ama den, eta, hala bada, seme-alaba adingabeak nola dauden aztertu beharko dute.

Esku hartzen duten zerbitzuek ziurtatuko dute ezen, biktima jasandako indarkeriari buruz deklaritzen ari denean, seme-alabak ez direla aurrean egongo. Bestalde, salaketa jarri edo baliabideren bat izapidetzen den bitartean seme-alabak amarekin badaude, gune bat gaitu beharko da adingabeek beren beharrezanez egokitutako arreta jaso ahal izan dezaten.

4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN KASUETARAKO PROZEDURAK UROLA GARAIAN

4.1. Sarrera-puntuak: sarbideak eta detekzio-zerbitzuak

Urola Garaian, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimeztako sarbideak udalekoak, eskualdekoak, foralak eta autonomia-erkidegokoak dira. **Arreta** emateko guneak izateaz gain, indarkeria **detektatzeko** guneak ere badira. Detekzio horrek zuzeneko eragina izango du biktimekiko esku-hartzean.




4.2. ESKU-HARTZEAREN EZAUGARRIAK

Emakumeek jasaten dituzten indarkeria matxistako erasoak askotarikoak direla kontuan hartuta, bi kasu bereizten dira:


LARRIALDIKO ARRETA	LEHENTASUNEZKO ARRETA
• Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuak • Gertatu berriak diren sexu-erasoak	• Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuak • Gertatu berriak ez diren sexu-erasoen kasuak

Jarraian, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak artatzeko baliabideen eskema erakusten da.




4.3. LARRIALDIKO ARRETA EMAKUMEEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN KASUETAN

Egoera horietan



Baina **larrialdizat hartuko da, halaber**, emakumeak hala identifikatzen ez badu ere, honako kasu hauetakoren bat gertatzen bada:



Kasu horietan, litekeena da emakumeak uko egitea larrialdiko neurriei, hala nola larrialdiko harrera-etxebizitza batean sartzeari edo salaketa jartzeari. Kasu horietan, teknikariek honako hauek egin beharko dituzte:

- Emakumeari segurtasuna emango dion plan bat ezarri.
- Kasuaren jarraipena egin.
- Beste zerbitzu batzuekiko koordinazio egokia ziurtatu.

Hauek dira larrialdietan arreta eman dezaketen zerbitzuak:

Udaltzaingoa –Ertzaintzara bideratuko du–, oinarrizko gizarte-zerbitzuak, GLFZ, Zumarra-
gako ospitalea eta Osakidetza EAG.

Larrialdiko esku-hartzean kontuan hartu beharreko alderdiak:

Baliteke emakumeak krisiak izatea. Kasu horretan, babesa eskainiko zaio, eta hartu beharreko segurtasun-neurriei buruzko informazioa emango zaio. Segurtasun-neurri horien xedea izango da emakumea bera eta hark kargura dituen pertsonak babestea.


Nolanahi ere, azpimarratuko da oso garrantzitsua dela baliabideekin harremanetan jarraitzea eta OGZra jotzea.

4.3.1. Larrialdian esku hartzeko prozesuan emakumeari lagun egitea

Emakumearen egoeraren arabera, oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta larrialdietako zerbitzuen artean baloratuko da ea emakume horrek laguntza handiagoa behar duen. Beharrezkoa izanez gero, Ertzaintzari bertaratzeko eskatuko zaio, emakumeari lagun egiteko. Garrantzitsua da, ahal den guztietan, bertaratzen den polizia-bikotea kalez jantzita egotea.

4.3.2. Larrialdietako bizitokia


Emakumea eta haren kargura dauden pertsonak gizarte-larrialdietako foru-zerbitzuaren larrialdietako harrera-zentrora bideratzea baloratu daiteke, honako arrazoi hauengatik:




Emakumeak mendekotasun handia duen eta etxetik irten ezin duen pertsonaren bat badu bere kargura:

Emakumeak arreta ematen dion gizarte-zerbitzuak bermatu beharko du etxean dagoen pertsona horrek arreta egokia jasoko duela (etxeko laguntza puntualaren bidez); hala, emakumeak aukera izango du salaketarako izapideak egiteko eta/edo bere egoera fisiko eta emozionala zaintzeko.

4.3.3. Adingabeentzako arreta




4.3.4. Informazioa, aholkularitza eta bideratzea



INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA HOBEA EMATEKO ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIORAKO I. PROTOKOLOA, 2022AN BERRIKUSIA ETA EGUNERATUA


EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTEN AURREKO LARRIALDIKO JARDUKETEN LABURPENA




4.4. LEHENTASUNEZKO ARRETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN KASUETAN

Lehentasunezko edo etengabeko arreta eman behar den egoeretan, ez da nahitaezkoa berehala jardutea; izan ere, etengabe eta erregularatasunez esku hartu behar da, zerbitzu espezializatuekin koordinatu ahal izateko (arreta psikologikoa, juridikoa, etab.).

Garrantzitsua da genero-indarkeriaren kasuetan honako hauek kontuan izatea:




Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin esku hartu behar den kasuetan:



INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA HOBEA EMATEKO ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIORAKO I. PROTOKOLOA, 2022AN BERRIKUSIA ETA EGUNERATUA

LEHENTASUNEZKO ARRETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAKO ERASOETAN. LABURPENA




4.5. ARRETA SEXU-ERASOEN KASUETAN

Kasu horietan, bi egoera bereizi behar dira:

- Sexu-erasoa gertatu berria da (120 ordu/5 egun)
- Sexu-erasoa gertatu zenetik 5 egun baino gehiago igaro dira.

4.5.1. Gertatu berriak diren sexu-erasoen aurreko arreta

Egoera horietan bi alderdi garrantzitsu daude:



Emakumea artatu duen lehen baliabideak lagunduko dio hari ospitalera; han, Osakidetzaaren protokoloa aplikatuko da⁵. Ondoren, baliabide horiek, bai emakumea artatu duen lehenak bai Osakidetza, jarraipena egingo diote emakumeari, eta etengabeko arreta eskainiko diote.

Une oro gogoan izan behar da emakumea ez dela derrigortu behar salaketa egitera, hark hala nahi ez badu. Nolanahi ere, doako laguntza juridikoa jasotzeko aukerari buruzko informazioa emango zaio.

⁵ Genero indarkeriaren eta sexu erasoaren aurrean Euskadin nola jardun jakiteko jarduketa-gida <https://www.osakidetza.euskadi.eus/profesionalak/-/genero-indarkeriaren-eta-sexu-erasoen-aurrean-euskadin-nola-jardun-jakiteko-jarduketa-gida/>


Biktima **adingabea** bada, familiari edo legezko tutoreei eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Adingabeen Zerbitzuari abisatuko zaie –bulegoko ordutegitik kanpo bada, GLFZri– emakumeari laguntza eta babes emozionala emateko, eta laguntza soziojuridikoko eta psikosozialeko zerbitzuei buruzko informazioa helarazteko.

Ospitaleko lagin-hartzeari dagokionez, Sexu askatasunaren berme osoaren irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoak 48. artikuluan xedatzen du ezen **osasun-zerbitzuek nahitaez jaso eta zaindu behar dituztela lagin biologikoak eta bestelako ebidentziak, emakumeak salaketa jarri ala ez**. Beraz, Osakidetzak prozedurak berrikusi eta eguneratu beharko lituzke.

4.5.2. Gertatu berriak ez diren sexu-erasoen aurreko arreta⁶

Erasoa gertatu zenetik 5 egun baino gehiago igaro direnean. Kasu horretan, alde batera utziko da laginak hartzeko prozedura, baina, emakumeak hala nahi badu, egoeraren berri emango zaie osasun-zerbitzuei eta zerbitzu psikologiko espezializatuari.


Kasu horietan, honako hauek dira arreta ematen duten zerbitzuak:



⁶Erasoa gertatu zenetik 5 egun baino gehiago igaro direnean.

INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA HOBEA EMATEKO ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIORAKO I. PROTOKOLOA, 2022AN BERRIKUSIA ETA EGUNERATUA

GERTATU BERRIAK DIREN SEXU-ERASOEN AURREKO JARDUKETEN LABURPENA



5. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Erakunde sinatzaileen arteko koordinazioa hobetzeko eta protokolo honetan jasotakoaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, protokoloaren jarraipen-mahaien funtzionamenduaren jarraipena egin, indartu eta bermatuko da:

5.1. Koordinazio teknikorako mahaia

Honako hauek egiten dute deia eta dinamizatzen dute: Berdintasun-teknikariak (Urola Garaiko Berdintasun Arloa)	Honako hauekosatzen dute: 1. Urola Garaiko Berdintasun Arloko berdintasun-teknikariak 2. Urola Garaiko 4 udalerrietako oinarritzko gizarte-zerbitzuetako ordezkariak 3. Zumarragako ertzain-etxeko genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren ataleko ordezkariak 4. Urola Garaiko 4 udalerrietako Udaltzaingoen ordezkariak 5. Zumarragako osasun-zentroko eta Legazpiko osasun-zentroko ordezkariak (Osakidetza) 6. Zumarragako ospitaleko larrialdietako zerbitzuko ordezkariak (Osakidetza) 7. Zumarragako osasun mentaleko zentroko ordezkariak 8. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Ikuskaritzako teknikariak
Funtzioak: ✓ Deialdia egitea, gai-zerrenda egitea eta bilerako aktak idaztea eta zabaltzea. ✓ Protokoloaren jarraipena eta funtzionamendu egokia bermatzea. ✓ Urteko datuak biltzea eta txostena egitea.	Funtzioak: ✓ Erantzun koordinatua ematea. ✓ Protokoloaren funtzionamendua eta erakundeen arteko koordinazioa aztertzea eta ebaluatzea. ✓ Etengabeko trebakuntza. ✓ Erakundeek landu beharreko estatistika-datuak edukia zehaztea. ✓ Protokoloak aldatzeko proposamenak egitea eta zerbitzu berriak proposatzea, atzemandako premien arabera.

KOORDINAZIO-MAHAIAREN MAIZTASUNA ETA DEIALDIA:

- Mahaia **SEI HILEAN BEHIN** bilduko da, erregularitasunez.
- Ezohiko bilerak ere egingo dira, larrialdiko kasuak dauden orotan; horretarako, nahikoa izango da erakunde mahaikide batek deialdia egitea.

6. UDALEN ERANTZUN INSTITUZIONALEI BURUZ

Protokolo hau sinatzen duten udalek, udalerriko indarkeria matxistaren kasuak zigorrik gabe ez uzteko konpromisoan, indarkeria horren erabateko arbuioaren kultura eraikitze beharrezko ekintzak egingo dituzte, adierazten den edozein modu eta eremutan. Aldi berean, biktimei baldintzarik gabeko babes emango diete, eta babes horrekin bat egiteko eta udalerriek parte hartzen duten indarkeria adierazpen guztiak baztertze deia egingo diete herritarrei.

Mankomunitateak erantzun proportzionatua emango du, etengabeko gogoeta lanaren emaitza, ezagutzen dituen kasuen aurrean, biktimentzako **erreparazio ekintza** gisa eratzeko helburuarekin, non estatuek, *behartutako erakunde* gisa, biktimen eskubideen eraginkortasuna bermatu behar duten, bai eta biktimen premietara egokitutako erreparazioa ere, epe laburrera, epe ertain eta luzera.

Biktimak eskubideen eta agentziaren ahalmenaren titular direla ulertuta, Mankomunitatea beti egongo da harremanetan berarekin eta/edo haren ordezkari izan daitekeen bere inguruko pertsonarekin edo pertsonekin, eta, horrez gain, errespetatu egingo da berak hartzen duen erabakia, egin nahi diren instituzio-edo auzo-gaitzespeneko ekitaldi publikoei dagokienez.

6.1. ERANTZUN PUBLIKOAREN HELBURUAK

Hurbileko ingurune batean indarkeria-ekintza bat gertatzen denean, sinesgogortasundinamikak sortzen dira herritarren artean, litekeena baita protagonista ezagutzea edo nolabaiteko lotura izatea. Horrek ez die beti giro hobea sortzen emakumeei, beren erabakiz edo zirkunstantzien ondorioz, beren indarkeria egoera publiko egiten dutenean, batzuetan, oihartzun handiagoa duen eraso batengatik. Zurrumurruak lehen erantzun bat dira, eta askotan biktimaren kontakizuna eta/edo ustezko erasotzailetzat jotzen denaren erantzukizuna zalantzan jartzen duten aldiak; mugimendu feministak, bestalde, erantzun azkar eta sendoak eskatu ohi dizkie biktimari eragindako kaltea konpontzen eta biktimarekiko ingurune solidarioa sortzen **lagundu** behar duten udaleko politikariei.

Hori guztia presio ingurune batean egiten ohi da, eta erantzun azkarra eskatzen du; horregatik, erakunde-proposamena egiteko **funtsezko alderdi** batzuk hartu behar dira kontuan.

Hona hemen herritarrekin bat egin nahi duen erantzun publiko instituzionalaren **helburu** nagusiak:

1. Biktimari eta haren inguruari **elkartasuna eta babesa adieraztea**. Horretarako, beharrezkoa da biktimak behar duen arreta lehentasunezkoa izatea, hau da, indarkeria kasu bat ezagutzen denean, lehen urratsa biktimaren eta haren ingurunearen egoerari eta premiei erantzutea da, dauden zerbitzuak aktibatuz eta ad hoc laguntzarekin erantzunez, egoera horri erantzuteko ibilbide argirik ez badago.
2. Era berean, kontuan hartu behar da erakundearen erantzun publikoa **erreparazio neurri** bat dela, eta, beraz, beti biktimaren borondatea errespetatuz egin behar dela, eta aukera eman behar zaiela egin nahi dutena eta nola egin nahi duten adierazteko.
3. Indarkeria matxistaren **gaitzespen publikoa** egitea. Ildo horretan, herritarren erantzunak funtzio pedagogikoa bete behar du, herritarrak sentsibilizatzeko eta indarkeria matxistaren aurrean kontzientziatzeko. Horretarako, indarkeria matxistaren egitura izaera nabarmendu behar da udalerriek herritarrei zuzentzen dizkieten mezuetan, oinarritzko informazioa transmitituz indarkeria mota bakoitzaren izaera eta ezaugarriak ulertzeko, eta, bestetik, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren esparruan betetzen duen funtzio soziala.

6.2. ERAKUNDEEN ERANTZUN PUBLIKOAREN ANTOLAKETA: KASUA EZAGUTZEN DA

Mankomunitateko kideren batek kasua bide fidagarritik ezagutzen duenean: biktimaren beraren bidez, bere ingurunearen bidez, joan den erakunderen baten bidez, mugimendu feministaren bidez edo eraso espazio publikoan gertatu delako, informazioa baloratuko du eta, beharrezkoa bada, berretsi egingo du, batez ere komunikabideen edo sare sozialen bidez jasotzen bada.

Informazioa egiaztatu ondoren, protokoloa aktibatuko da honako kasu hauetan:

- o Eraso udalerrian gertatu da.
- o Eraso udalerritik kanpo gertatzen bada, baina emakumea edo erasotzailea bertakoak badira edo udalerriarekin lotura badute.
- o Hirugarren pertsona bati eraso egin badiote biktima defendatzeagatik edo laguntzeagatik.
- o EAEn emakumeren bat edo haren seme-alabak erail badira.

Kasu horietako bat betetzen bada edo zerrenda honetan jasota ez dagoen beste bat gertatzen bada, baina erantzun publiko instituzionala emateko nahikoa larritzat jotzen bada, lehenengo urratsak emango dira:

1. Erantzunaren koordinazioan parte hartuko duen eragile bakoitzaren rola eta funtzioak definitzea.
2. Behar izanez gero, udalen eta erakundeen arteko koordinaziorako zehaztutako mekanismoak abian jartzea.
3. Biktimarekin harremanetan jartzea eta harekin harremanetan jartzea, haren beharrak zuzenean ezagutu ahal izateko. Edozein arrazoi dela-eta horrelakorik ezin bada gertatu, harreman hori ezarriko da haren ordezkari diren hurbileko pertsonekin.

Garrantzitsua da adieraztea inplikaturako eragileen arteko koordinazio lanean **biktima-ren intimitatea eta integritate emozionala zaintzea gailendu** behar dela, agente bakoitzaren zeregina eta bere lana zehaztuz, inola ere gainditu gabe. Alde horretatik, inplikaturako pertsonak beren rola eta eginkizuna non amaitzen duten jakin behar dute, inplikaturako gainerako alderdien lana ez oztopatzeko.

Erasotzailea eta haren ingurune hurbila

Lehen fase honetako lehentasuna biktimarekin elkarrizketa ezartzea da, baina horrek ez du esan nahi udalak ustezko erasotzaileari eta haren gertuko inguruari entzun ezin dionik. Hala ere, udalak argi izan behar du ezin duela epailearen rola bere gain hartu, ezta bere iritzi pertsonalenetan oinarritutako erabakirik hartu ere. Horregatik, kanpoko ikuspegi aditua izatea garrantzitsua izan daiteke nahasmendua eta zalantzak daudenean.

Kanpoko laguntza eta aholkularitza

Lehen uneetan hartzen diren erabakiak garrantzitsuak dira, horregatik ez da zalantzarik izan behar kanpoko laguntza edo aholkularitza eskatzerakoan. Erantzun publikoari

buruzko edozein zalantza izanez gero, jarri harremanetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako Organoarekin.

6.3. ERAKUNDEEN ERANTZUN PUBLIKOAREN ANTOLAKETA: KOORDINAZIO-MEKANISMOAK AKTIBATZEN DIRA


Koordinazio-mekanismoak abian jarriko dira kasua baloratu ondoren, biktimari eta haren inguruneari behar diren laguntzak abian jarri ondoren eta hark erantzun publiko instituzionala ematea garrantzitsua dela uste duenean. Komeni da koordinazio egiturak gertaerak gertatu aurretik egotea, baina horrelakorik gertatu ez bada, koordinazio-mahaia ezar daiteke, eta bertan politikariek eta teknikariek parte hartuko dute.



Parte hartzen duten eragile guztientzat argi geratu behar da erantzunaren erabakia biktimak duela, eta politikariek erabakitzen dute biktimarekin eta haren ingurunearekin koordinatuta adostutako erantzun instituzionala. Mugimendu feministak edo erantzun horretarako koordinatzen diren beste gizarte eragile batzuek bat egin dezakete erakundeen deialdiekin edo deialdi propioak egin ditzakete.

Gizarte eragileen autonomia errespetatuz, ekintza koordinatuen bidez erantzun ahal izateko ahalegina egingo da, eta, ahal izanez gero, antzeko moduan.

Garrantzitsua da koordinazio horretan beste alderdi batzuk kontuan hartzea.



6.4. ERANTZUN PUBLIKO INSTITUZIONALAK ANTOLATZEA: JARDUERA INSTITUZIONALAK ANTOLATU ETA GAUZATZEN DIRA

Erantzun publiko instituzionalaren eragina baloratu ondoren, adostutako jarduerak gauzatu behar dira, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

Erakundeen jardun publikoak modu koordinatuan planifikatzea, espero diren emaitzak lortzen direla ziurtatzeko.

Garrantzitsua da erantzun publikoan mezu bat adostea, indarkeriaren egitura-izaera eta funtzio soziala azpimarratuz.

Erantzun publikoaren mezuak artikulatzerakoan, honako hauek **hartu behar dira kontuan**:

- o Testuingurua: Gertakariez haratago, indarkeria matxista normalizatu den gizarte batean bizi garela azaldu behar da, eta hori onartezina da. Horregatik, garrantzitsua da indarkeriaren egiturazko kausak eta emakumeen askatasuna eta segurtasuna kontrolatzeko duen funtzio soziala azpimarratzea.
- o Erasoa adingabeen artean gertatu bada: *Adingabearen Interes Gorenaren printzipioa errespetatuz*, familiarekin edo legezko tutoreekin harremanetan jarri behar da, eta erakundetan inolako erantzukizun publikorik ez egitea edo informazio-ekintza bat egitea baloratuko da, haurren eta nerabeen babesa nabarmenduz, eta arreta biktimari eta haren inguruneari, familiari eta erreferentzia taldeari arreta eskaintzeaz gain⁷.
- o Kasua komunikabideetara eta sare sozialetara zabaldu bada, instituzionalki erantzuteko modurik onena baloratuko da, tartean dauden haurrak eta nerabeak beti babestuz. Horretarako, azpimarratuko da gertakari horiek ez dutela zertan baldintzatu behar beren bizitza, erresilientzia gaitasuna eta laguntzaren garrantzia nabarmenduz.

Bi erantzun publiko instituzional mota daude

1. Gertaera zehatz bati modu zehatzean **erantzutea**, biktimaren edo haren inguruko baimenarekin.
2. Udalak indarkeria matxista kasu guztiak salatzeke egiten dituen **ekintzak publiko egitea**.

⁷ Erasoren bat egin duten haur edo nerabeen kasuan, garrantzitsua da zigor-neurriak ezartzeaz gain, erantzun-ekintzak ingurunean sentibilizazio-lan pedagogikoa egitera bideratzea eta adingabearen zati bat konpontzeko neurriak abian jartzea, biktimari eta haren inguruneari zuzenduta.

Modalitate horiek honako **ekintza hauekin** jar daitezke abian:

- Kasu bat modu seguruan ezagutzean, egoeraren arabera egokienak diren kanalen bidez erakundeek familiei ematen dieten babesak adieraziz. **Laguntza hori ez du zerikusirik biktimak salaketa jarri badu**, neurri hori emakume bakoitzak bere inguruabarren arabera baloratzen duela ulertuta.
- Emakumeei, senideei eta gertuko beste pertsona batzuei **behar duten laguntza** bermatzea, udal-baliabideen bidez eta aktiba daitezkeen beste batzuen bidez.
- **Indarkeria matxistaren kasu partikularren gaitzespena publiko egitea**, biktimen edo gertuko pertsonen baimenarekin, eta jarduteko moduarekin ados daudela ziurtatzea.
- **Erantzuna berehalakoa** izango da, baina horrek ez du esan nahi gertakarien berri izan eta egun berean edo hurrengo egunean eman behar denik. Zentzuzko denbora itxaron daiteke biktimek jarduketara horiek baloratu ahal izateko.
- Herritarren eskaerak jasotzen badira erantzun bat emateko eta biktimaren baimenik ez badago, **egoera aipatu ahal izango da komunikatu batean**, non adierazten den udalak barnean eta biktimari dagokionez jarduten duela.
- **Ekitaldi publikoak** egun seinalatuetan egingo dira: martxoaren 8an, emakumeen nazio arteko egunean; azaroaren 25ean; eta ekainaren 28an.
- **Urteko kontu-emate bat** egingo da, eta kasu kopuruari, udalak emandako erantzunari, eskainitako zerbitzuei eta abarri buruzko datuak argitaratuko dira.


Jarraian, erantzun publiko instituzionaleko agertoki hauek proposatzen dira:

INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA HOBEA EMATEKO ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIORAKO I. PROTOKOLOA, 2022AN BERRIKUSIA ETA EGUNERATUA

0 AGERTOKIA

Erantzun publikoaren koordinazioa Etxeko Tratu Txarrak eta Sexu Indarkeria jasaten dituzten Emakumeei Arreta Hobe emateko [Erakundeen Arteko II. Akordioaren](#) Jarraipen Batzordeak xedatutakoaren arabera arautzen da:


- Etxeko tratu txarren ondorioz, bikotekideak edo bikotekide ohiak emakume bat hil du
- Emakume bat sexu-eraso bidez hil dute



INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA HOBEA EMATEKO ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIORAKO I. PROTOKOLOA, 2022AN BERRIKUSIA ETA EGUNERATUA

1. AGERTOKIA


- Bikotekideak, bikotekide ohiak, senide batek, ezagun batek edo ezezagun batek emakume bat hil du edo hiltzen saiatu da.
- Genero-indarkeriaren biktima den emakume baten seme-alabak hil dituzte edo hiltzen saiatu dira.
- Indarkeria sexistaren biktima bat erasoek utzitako sekuelen ondorioz hil da.



INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA HOBEA EMATEKO ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIORAKO I. PROTOKOLOA, 2022AN BERRIKUSIA ETA EGUNERATUA

3. AGERTOKIA

- Lesiorik gabeko edo lesio larririk gabeko erasoa indarkeria sexistaren biktima den emakume bati, baldin eta eraso horrek, biktimaren ezaugarriengatik, gertatu den udalerraren ezaugarriengatik edo beste inguruabar batzuegatik, alarma sozial berezia sortu badu edo erasoa garrantzi handikotzat jo bada.
- Baloratu ondoren eskubideen urraketa berezitat jo den egoera oro, aurreko puntuetan jasota ez egon arren.




INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA HOBEA EMATEKO ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIORAKO I. PROTOKOLOA, 2022AN BERRIKUSIA ETA EGUNERATUA

NOLA JOKATU JAI-GIROAN INDARKERIA SEXISTAREN KASUAK GERTATZEN BADIRA

Protokoloa honako kasu hauetan aktibatuko da:

- Erasoa Legazpin gertatzen bada.
- Gertakariak Legazpitik kanpo gertatu badira baina biktima edo erasotzailea Legazpin bizi bada.
- Aurreko bi kasuetako edozeinetan, eraso sexistaren biktimak defendatzera edo haiei laguntzera irten den edozein pertsonari eraso egin bazaio.



PREMAIZKO INFORMAZIO-SAREKO KIDEAK: informazio garrantzitsua duten udal-arloetako arduradunak, Udaltzaingoa, Ertzaintzako kasu-arduraduna, osasun-zentroetako arduradunak, Zuzendaritza ospitalea, informazio garrantzitsua duten Osakidetzako langileak, foru-departamentuetako zuzendaritzak edo haiek eskuordetzen dituzten langileak, informazio garrantzitsua duten elkarteetako kideak eta funtsezko informatzaileak diren beste pertsona batzuk.

Erantzun publiko instituzionalaren eraginaren jarraipena garrantzitsua da, ikasten jarraitzeko eta hobetzeko.



6.5. ERAKUNDEEN ERANTZUNAREN JARRAIPENA

Finkatutako helburuak bete direla eta erakundearen erantzuna finkatutako irizpideen eta printzipioen arabera eman dela egiaztatu ahal izateko, ezinbestekoa da horien jarraipena egitea.

Erantzun publikoaren jarraipenak honako helburu hauek izango ditu:

- Biktimei eta haien familiei arreta emateko adostutako neurriak aurrera eraman direla egiaztatzea.
- Erasoaren hasierako inpaktua igaro ondoren sortu diren beste premia batzuk ikeritza, baita horiek nola bete diren eta/edo artatu behar diren ere.

- Kasu bakoitzean edo urtebetean gertatu diren kasuetan egin daitezkeen konponketa-neurriak baloratzea.
- Aldaketak egiteko erabakitakoaren eraginkortasuna eta jarduna ebaluatzea.
- Ziurtatzea ikasgai honetako ikaskuntzak sistema bera aplikatu eta hobetzeko txertatzen direla, eta ezagutza eta informazioa sortzen direla, horien baliozkotasuna integratu eta ebaluatzeko.

I. ERANSKINA. 2013ko maiatzeko Erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordearen Akordioa. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondoriozko heriotzen aurrean jarduteko prozedura

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondoriozko heriotzen aurrean jarduteko prozedurak

Alde batetik, biktimen familiei eta biktima diren seme-alaba adingabeei —halakorik egonez gero— instituzioen gaitzespena eta laguntasuna erakusteko ezartzen dira prozedura hauek, eta, bestetik, instituzioen laguntza, esku-hartzeak eta instituzio arteko koordinazioa hobetzeko, emakume gehiagoren heriotzarik gertatu ez dadin. Egoera hauetan jarri behar dira martxan:

- 1) Etxeko tratu txarrak emanez, bikotekideak edo bikotekide ohiak emakume bat hiltzen duenean.
- 2) Sexu-erasoa eginez, emakume bat hiltzen dutenean.

1) Gizartean eragin handia izaten duten oso kasu larrietan biktimari instituzioen gaitzespena eta laguntza erakusteko prozedurak

Eman beharreko pauso nagusiak:

- a) Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak emakume baten heriotzaren berri izaten duenean, heriotza hori etxeko tratu txarren edo sexu-erasoaren ondoriozkoa izan dela egiaztatzeko azterna nahikoak daudela ikusten badu, berehala harremanetan jarriko da Jarraipen Batzordeko lehendakariarekin. Akordioan parte hartzen duen beste edozein instituziok ere jo dezake Jarraipen Batzordeko lehendakariarengana, prozedura hau martxan jartzea eskatzen duen heriotzaren baten berri baldin badauka. Horrelako kasuetan, lehendakaria Segurtasun Sailarekin jarriko da harremanetan, hark zehaztu dezan prozedurarekin jarraitu behar den ala ez.
- b) Gertakariak egiaztatu eta gero, Jarraipen Batzordeko lehendakariak biktima erroldatuta dagoen udala jakinaren gainean jarriko du lehenbailehen, eta, behar izanez gero, gertakaria gertatu den herriko udala eta Batzordean parte hartzen duten gainontzeko instituzioak ere bai.
- c) Biktima erroldatuta dagoen udalak osoko bilkurarako deia egingo du; gaitzespena adierazteko eta familiari laguntasuna erakusteko adierazpen instituzionala onartuko du, eta egin beharrekotzat jotzen dituen ekitaldietan (elkarretaratzeak, manifestazioak, eta abar) parte hartzeko deia egingo die herritarrei, ahal bada

elkarte-mugimenduaren adostasunarekin eta betiere guztiaren berri biktimaren familiartekoei emanez. Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundiko, Legelarien Euskal Kontseiluko eta dagokion sendagileen elkargoko ordezkari politiko bana, gutxienez, joango da ekitaldi horietara. Horrez gain, udalak biktimaren familiartekoen eskura jarriko ditu gizarte-baliabideak, eta, beharrezkotzat jotzen badu, herri-akzio gisa agertuko da.

- d) Lehendakaritza, Emakundeko zuzendariaren bidez —eta, bestela, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiko titularren bidez—, biktimaren familiartekoein harremanetan jarriko da, familiari laguntasuna eta elkartasuna adierazteko.

2) Biktimaren familiari, biktima diren seme-alaba adingabeei eta beste biktimei ematen zaaien laguntzaren koordinazioa

Jarraipen Batzordeko lehendakariak bideratuko du inplikaturik dauden instituzioen arteko koordinazioa, biktimaren familiari eta haren inguruneari, biktima diren adingabeei eta —egonez gero— beste biktimei eman beharreko laguntza guztia emateko eta eskaini beharreko zerbitzuak eskaintzeko.

3) Esku-hartzeak eta/edo biktimei eskaintzen zaaien arreta hobetzeko prozedura

- a) Kasuan inplikazio zuzena duten erakundeez osatutako talde batek aztertuko du kasu zehatz bakoitza, eta Emakundek koordinatuko du prozesua. Aipatutako azterketan, kasuaren historia kronologikoa egingo da: edozein administraziok edo zerbitzu publikok emakumearen berri lehenengo aldiz izaten duenetik hasita emakume horrek izan duen ibilbide guztia bilduko da, edozein administrazio edo zerbitzu publikorekin izan dituen kontaktu guzti-guztiak barne.

Ibilbidea, oso-osorik, dokumentu batean jasoko da eta hori erabiliko da hobetu beharreko alderdiak ezartzeko oinarritzat. Dokumentu hori, gero, Jarraipen Batzordeari bidaltzen zaion txostenari gehituko zaio.

- b) Jarraipen Batzordeak egoki ikusten badu, txostena STTk berriz aztertu ahal izango du, hobetzeko proposatu diren alderdiak berraztertzeko.

Azkenik, Jarraipen Batzordeak bide emango dio txostenari, bertan biltzen diren hobekuntzak gauzatzeko eskatuz inplikaturik dagoen administrazio edo zerbitzu publiko bakoitzar

**INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA HOBEA EMATEKO ERAKUNDEEN ARTEKO
KOORDINAZIORAKO I. PROTOKOLOA, 2022AN BERRIKUSIA ETA EGUNERATUA**

II. ERANSKINA. ZERBITZU BAKOITZEKO ARDURADUNEN DIREKTORIOA

ERAKUNDEA	KARGUA	IZENA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	TELEFONOA	HELBIDEA
Urola Garaiko Mankomunitatea	Eskualdeko berdintasun-teknikaria	Estibaliz Maitane	berdintasuna@uggasa.eus	943 252 389	Urola Garaiko Emakumeen Etxea (Pagoeta Auzoa 1, 20700 Urretxu)
Legazpiko Udala	Gizarte-zerbitzuak	Nerea Arregi	narregi@legazpi.eus	943 73 70 30- Luzapena: 280	Euskal Herria Plaza1, 20230 Legazpi
	Udaltzaingoa	Xabier López	udaltzaingoa@legazpi.eus	943 737 155	Euskal Herria Plaza1, 20230 Legazpi
Urretxuko Udala	Gizarte-zerbitzuak	Almudena Carrillo	gizartezerbitzuak@urretxu.eus	943 038 083	Iparragirre 20, 20.700 Urretxu
	Udaltzaingoa	Xabier Ubera	udaltzainburua@urretxu.eus	943 038 085	Iparragirre 20, 20700 Urretxu
Zumarragako Udala	Gizarte-zerbitzuak	Beatriz Arbizu	barbizu@zumarraga.eus	943 729 156	Euskadi enparantza 1, 20700 Zumarraga
	Udaltzaingoa	Patxi Iraeta	piraeta@zumarraga.eus	943 729 169	Euskadi enparantza 1, 20700 Zumarraga
Ezkio-ltsasoko Udala	Gizarte-zerbitzuak	Bihotza Esnaola	gizarte@ezkio.euz	943 721 303	Ezkio Núcleo Gunea, 2, 20.709 Ezkio
Ertzaintza	Genero-indarkeria/Etxeko tratatu txarrak ataleko Urola	Txemo	jprotciu_debaurola@ertzaintza.eus	943 53 47 60	Geltokien enparantza 20700 Zumarraga

**INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA HOBEA EMATEKO ERAKUNDEEN ARTEKO
KOORDINAZIO-RAKOA I. PROTOKOLOA, 2022AN BERRIKUSIA ETA EGUNERATUA**

	Garaiko arduraduna				
	Genero-indarkeria/Etxeko tratatu txarrak ataleko Deba Garaiko arduraduna	Andoni Larrañaga	vdvg_debaurola@ertzaintza.eus	943 534 760	Geltokien enparantza 20700 Zumarraga
Osakidetza	Legazpiko osasun-zentroko emagina	Arantxa Perez de Arenaza	Mariaaranzazu.perez.arenazaunanue@osakidetza.eus	943 035 210	Latxartegi Kalea 20230 Legazpi
	Zumarragako osasun-zentroko emagina	Itziar Urzelai	Mariaitziar.urcelayibarzabal@osakidetza.eus	943 035 220	Geltokien enparantza 20700 Zumarraga
	Zumarragako osasun mentaleko gizarte langilea	Iñaki Leiceaga	Inaki.leiceagaugarte@osakidetza.eus	943 721 563	Hiri lorategia 20, 20700 Zumarraga
	Zumarragako ospitaleko Larrialdietako Burua	Ana Belén Maillo	<u>anabelen.maiilloarana@osakidetza.eus</u>	943 035 000 (telefonogunea)/943 035 011 (Larrialdietako harrera)	Argixao auzoa z.g. 20700 Zumarraga
EJko Hezkuntza Ikuskaritza	Ikuskaria	Rafel Bergareche	<u>r-bergareche@euskadi.eus</u>	943 022 931	

Honako hauek dira arreata-zerbitzu nagusien ezaugarriak:

OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUAK
Eskumena: udalerri mailakoa Ordutegia: - Zumarragako oinarrizko gizarte-zerbitzuak: astelehenetik ostiralera, 7:30etatik 15:00etara - Urretxuko oinarrizko gizarte-zerbitzuak: astelehenetik ostiralera, 7:30etatik 15:00etara - Legazpiko oinarrizko gizarte-zerbitzuak: astelehenetik ostiralera, 7:30etatik 15:00etara - Ezkio-ltsasoko oinarrizko gizarte-zerbitzuak: astelehen, asteazken eta ostegunak 8:30etatik 12:30etara Ordutegi horretatik kanpo, GLFZk artatuko ditu kasuak. Sarbidea: • Interesdunek beren kabuz jotzen dute zerbitzu horretara edo telefonoz deitzen dute • GLFZtik bideratuta, oinarrizko gizarte-zerbitzuen ordutegitik kanpo jardun de-nean • Beste zerbitzu batzuetatik bideratuta Jarduketak: • <i>Harrera, arreata-plan indibidualizatua eta etengabeko esku-hartzea.</i> • <i>Udal-, foru- eta autonomia-zerbitzuetara bideratzea eta haiekin koordinatzea.</i> • <i>Izapide espezifikoak kudeatzen laguntzea (laguntza-eskaerak, etab.)</i> • Espedienteak ixtea pertsonak hala nahi duelako, helburuak lortu direlako edo pertsona hori beste udalerri batera bizitzera joan delako.

GLFZ
Eskumena: forala Ordutegia: 24 ordu urteko egun guztietan Sarbidea: • Interesdunek beren kabuz jotzen dute zerbitzu horretara edo telefonoz deitzen dute • GLFZtik bideratuta, oinarrizko gizarte-zerbitzuen ordutegitik kanpo jardun ondo-ren • Beste zerbitzu batzuetatik bideratuta Jarduketak: • <i>Harrera, arreata-plan indibidualizatua eta etengabeko esku-hartzea.</i> • <i>Udal-, foru- eta autonomia-zerbitzuetara bideratzea eta haiekin koordinatzea.</i>

- *Izapide espezifikoak kudeatzen laguntzea (laguntza-eskaerak, etab.)*
- **Espedientea ixtea** pertsonak hala nahi duelako, helburuak lortu direlako edo pertsona hori beste udalerri batera bizitzera joan delako.

ESKUALDEKO BERDINTASUN ARLOA

Eskumena: Eskualde mailakoa (Urola Garaiko Emakumeen Etxeko zerbitzua)

Ordutegia: Astelehenetik ostegunera 8:00etatik 16:00etara eta ostiraletan 8:00etatik 15:00etara.

Sarbidea: Biktimak beren kabuz joaten dira edo beste zerbitzu batzuetatik bideratuta.

Jarduketak:

- *Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea, hari aurre egitea, biktimak erreparatzea eta indarkeria hori desagerraraztea helburu duten politiken gidaritza eta koordinazio orokorra gauzatzea.*
- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta hobea emateko mekanismoak
- Sentsibilizazio-, prebentzio- eta arreta-jarduketak sustatzea.

OSAKIDETZA - ZUMARRAGAKO OSPITALEKO LARRIALDIETAKO ZERBITZUA	OSAKIDETZA - ZUMARRAGAKO OSASUN-ZENTROA ZUMARRAGA	OSAKIDETZA - LEGAZPIKO OSASUN-ZENTROA	OSAKIDETZA - ZUMARRAGAKO OSASUN MENTALEKO OSPITALEA
Eskumena: autonomikoa Ordutegia: 24 ordu urteko 365 egunetan. Sarbidea: Emakumeek beren kabuz jo dezakete zerbitzu horretara. Udaltzaingoak, Er-tzaintzak edo premia hauteman duen edozein zerbitzuek bideratuta.	Eskumena: autonomikoa Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 20:00etara Larunbat, igande eta jaiegunetan 9:00etatik 21:00etara Sarbidea: Emakumeek beren kabuz	Eskumena: autonomikoa Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 17:00etara Sarbidea: Emakumeek beren kabuz jo dezakete zerbitzu horretara. Jarduketak:	Eskumena: autonomikoa Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara Sarbidea: Emakumeek beren kabuz jo dezakete zerbitzu horretara. Oinarrizko gizarte-zerbitzuek, Osakide-

Jarduketak: Osakidetza genero-indarkeria eta sexu-erasoen aurrean Euskadin nola jardun jakiteko gida bat du.⁸	jo dezakete zerbitzu horretara Jarduketak: Hasierako arreta eta etengabeko arreta. Egin berriak diren sexu-erasoen kasuan, ospitalera bideratzea eta eramatea.	Etengabeko osasun-arreta. Gertatu berriak diren sexu-erasoen kasuan, ospitalera bideratzea eta eramatea.	tzak edo premia hauteman duen edozein zerbitzuko bideratuta. JARDUKETAK: Etengabeko osasun-arreta.
--	---	---	---

UDALTZAINGOA	ERTZAINITZA
Eskumena: udalerrri mailakoa Ordutegia: - Zumarragako Udaltzaingoa: Astelehenetik ostiralera, 7:00etatik 22:00etara. Larunbatetan, 6:00etatik 22:00etara. Igandeetan, 8:00etatik 22:00etara - Urretxuko Udaltzaingoa: Astelehenetik ostiralera, 7:00etatik 21:00etara. Larunbat eta igandeetan 9:00etatik 21:00etara - Legazpiko Udaltzaingoa: Astelehenetik ostiralera, 6:30etatik 21:30etara. Larunbat, Igande eta jaiegunetak 9:00etatik 21:00etara Sarbidea: Biktimek berek, haien ingurukoek edo eraso baten lekukoek	Eskumena: autonomikoa Ordutegia: 24 orduz, urteko 3.645 egunetan GI/EI unitatea: Astelehenetik ostiralera 7:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara Sarbidea: - Biktimek berek, haien ingurukoek edo eraso baten lekukoek jotzen edo deitzen dute zerbitzu horretara - Beste zerbitzu batzuek poliziariei etortzeko eskatu diotenean. - Beste zerbitzu batzuetatik bideratuta. Jarduketak:

⁸ Gida azkarrerako esteka:

https://www.euskadi.eus/documentacion/doc_sosa_guia_corta_vdg_euskad/eu_de_f/adjuntos/guia_rap_viol_genero_eu.pdf

jotzen edo deitzen dute zerbitzu horretara. • Beste zerbitzu batzuek poliziari etortzeko eskatu diotenean. Jarduketak: • Lehen arreta ematea eta Ertzaintzara bideratzea. • Zaintza- eta babes-lanak egitea, babes-agindu bat indarrean dagoenean eta Ertzaintzak laguntza eskatu duenean.	• Larrialdian lehen arreta ematea. • Babes-eskaerak izapidetzea • Arriskua baloratzea eta babes-neurriak eskaintzea, balorazioaren emaitzen arabera • Arreta-zerbitzu espezializatuari buruzko informazioa ematea.
--	---

III. ERANSKINA FORU- ETA AUTONOMIA-BALIABIDEAK

24 orduko telefono bidezko arreta-zerbitzua: 900 840 111 (SATEVI)

Zerbitzua autonomia-erkidego osoan eskaintzen da eta doakoa da. Zerbitzu honek eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan ematen du arreta. Gainera, hainbat hizkuntzatarata aldi berean itzultzeko zerbitzua eskaintzen du. Entzumen-urritasuna duten pertsonak ere baliatu dezakete zerbitzua.

Informazio-baliabide hau eskuragarri dago, halaber, indarkeriaren biktima den emakumeari nola lagundu jakin nahi duten senideentzat, lagunentzat eta gainerako pertsonentzat.

Baliabideak, bestalde, hainbat arlotako profesionalen informazio-beharak artatzen ditu.

Zenbaki honetara bideratzen dira Estatuaren eskumeneko 016 telefono-zenbakirako deiak. Garrantzitsua da emakumeei ohartaraztea 016 zenbakiak ez duela arrastorik uzten telefono-fakturan, baina bai deien erregistroan –mugikorrekotan zein telefono finkokotan–, eta, beraz, deia egin ondoren ezabatu egin behar dela.

Gipuzkoako Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua: 24 orduko arreta. 943 224 411/ 112 (SOS Deiak)

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak zerbitzu bat du Gipuzkoan etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeen premiazko segurtasun-eskaerei erantzuteko. Egoeraren balorazioa egin ondoren, beharrezkoa bada, emakumeari bizilekuaren arabera dagokion harrera-baliabidera lagunduko zaio. Ordutegia: eguneko 24 orduetan eta urte osoan dago eskuragarri.

Biktimari Laguntzeko Gipuzkoako doako Zerbitzua (BLZ). 900 100928

Zerbitzu hau Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailaren mende dago. Aurrez aurreko zerbitzua da; aurretik hitzordua hartu behar da.

Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Politikako Departamentua, Gizarte Larrialdietako eta Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumeei Laguntzeko Atala. 943113176/ 943112572.

Arreta sozio-juridikoko eta psikologikoko foru-baliabideak koordinatzen ditu, banakakoak zein taldekoak, egonaldi labur eta ertaineko harrerakoak, bai eta autonomiako eta gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeko etxebizitzak ere.

Larrialdietako "Urrats" harrera-zentroak berehalako harrera egiten die Gipuzkoan genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen biktima diren eta etxetik alde egin behar duten emakume guztiei, bai eta emakume horien kargura dauden eta familia-unitateko kideak diren pertsoneri ere. Baliabide horretara Gipuzkoako Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzuaren bidez (943 224 411) edo oinarritzko gizarte-zerbitzuen bidez iristen da.

Emakumearen aurkako Indarkeriaren Koordinazio Zentroa 944 016 726

Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailaren mendeko zentro honen xedea da emakumeen aurkako tratu txarren eta familia barruko indarkeriaren inguruan auzitegiek eman dituzten babes-aginduen eta gainerako neurrien jarraipena egitea eta inplikaturako erakundeak koordinatzea.

Emakumearen aurkako indarkeriaren, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen biktimei laguntza juridikoa emateko zerbitzua. 902 103 908

Justizia eta Herri Administrazio Sailaren mendeko zerbitzu hori abokatuen elkargoek ematen dute. Hala, biktimari abokatu-laguntza espezializatua ematen zaio salaketa jarri aurretik edo babes-agindua eskatu aurretik. Laguntza hori, ahal dela, polizia-bulegoetan eskatu behar da, baina epaitegietan edo gizarte-zerbitzuetan ere eska daiteke. Zerbitzu horietako profesionalek bideratu behar dute eskaera.

Orientazio Juridikoko Zerbitzua. 943 004 356/ 943 000 865

Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren mendeko zerbitzu honen bidez, ofiziozko abokatuaren eskaerak eta doako justiziaren eskaerak izapidetzen dira.

Emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegia (Donostia). 943 004 383

Gipuzkoan gertatzen diren genero-indarkeriaren kasuei dagozkien legezko prozedurak izapidetzen dituzte.

Bergarako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegia. 943 038 052

Fiskaltza (Donostia). 943 000 717

Auzitegiko Klinika (Donostia). 943 004 352. ERANSKINA

IV. ERANSKINA DATU PERTSONALAK ERABILTZEKO INFORMAZIO- ETA ADOSTASUN- AKTA. ERTZAINZA

ERTZAINZA	DATU PERTSONALAK ERABILTZEKO INFORMAZIO- ETA ADOSTASUN-AKTA
EI/GI espedientea: _____	
.....jn./and.	
NAN/pasaportea/egoitza-baimena/beste identifikazio-agiri bat:	
Datu pertsonalen babesaren arloko erregulazioak datuen lagapenaren inguruan jasotzen dituen aurreikuspenei eta kasuei kalterik egin gabe, Akta honen bidez 1. jakinarazten da ezen espediente honi lotutako datu pertsonalak eta informazioa, ■ behar izanez gero, polizia-kidegoen esku utzi ahal izango direla, polizia-eremuan soilik erabiltzeko, eta ezar daitezkeen babes-neurriak bete ahal izateko. 2. Era berean, arestian aipatutako pertsonak baimena ematen du datu horiek eta beharrezkoa den informazioa ■ Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eskura jartzeko –Emakundek gogobetetze-inkestak egin ahal izango ditu, biktimei aitortutako eskubideak benetan betetzen diren jakiteko–, bai eta beste erakunde batzuen eskura ere, baldin eta erakundeok gizarte-laguntzako eta biktimen eskubideen defentsako beren zeregin horretan informazio hori behar badute; hori guztia, genero-indarkeriaren biktimei ematen zaien laguntzaren kudeaketa integralari erantzun eraginkorra emateko egingo da. Bai ☐ Ez ☐ (markatu dagokiona) Noiz: Sinadura:	

V. ERANSKINA. ACTA DE CONSENTIMIENTO DE CESIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

DATU PERTSONALAK LAGATZEKO ADOSTASUNA

CESION DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

Izen –abizenak Nombre-apellidos	
NAN - Pasaportea –Egoitza baimena - identifikaziorako beste dokumentu bat DNI-Pasaporte- Permiso de residencia- Otro documento de identificación	

Legezko ordezkaria edo arduraduna⁹ Representante legal o persona responsable

Izen –abizenak Nombre-apellidos	
NAN - Pasaportea – Egoitza baimena - identifikaziorako beste dokumentu bat DNI-Pasaporte- Permiso de residencia- Otro documento de identificación	
Harreman mota Tipo de relación	

-----Informazio hau eman didatela jakinarazten dut idazki honen bitartez:

-Nik emandako datuak **ERAKUNDEEN ARTEKO JARDUERA ETA KORDINAZIO PROTOKOLOA INDARKERIA MATXISTA BIZI DITUZTEN EMAKUMEEI ARRETA HOBEA EMATEKO** izeneko fitxategian sartzeko dira, eta horren guztiaren helburua da.

Zerbitzu jarduera koordinatuz niri eta ardura pean dauden pertsonen arreta osoa ematea

Por medio de este escrito hago constar expresamente que he sido informada por.....de que:

-Los datos personales proporcionados se incorporarán a un fichero denominado **PROTOCOLO DE ACTUACIÓN Y COORDINACIÓN INTERINSTITUCIONAL PARA LA MEJORA EN LA ATENCIÓN A LAS MUJERES VÍCTIMAS QUE SE ENFRENTAN A LA VIOLENCIA MACHISTA** cuya titularidad es del Ayuntamiento.

⁹ Beharrezkoa denean bakarrik bete - Complimentar solo en caso necesario

Informazio hau baliagarria izango da datu objektiboetan oinarritutako politika publikoak sortzeko, eta ikerketarako zein estatistiketarako erabiliko dute.

Eskubidea dut:

-Hemen agertzen diren datu batzuk nahiz guztiak erabiltzeko baimena ez emateko.

-Baimena edo adostasuna ez emateak ekar ditzakeen ondorioak zeintzuk diren azaldu didate.

-Urola Garaiko Mankomunitatean datu hauek ikusteko, aldatzeko, baimena kentzeko eta ezadostasuna adierazteko.

Horrenbestez, libreki nire adostasuna ematen dut Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraiki.

Urretxun, 2022ko.....ean

Esta información ayudará en la elaboración de políticas públicas basadas en datos objetivos al mismo tiempo que podrá ser utilizada para finalidades estadísticas y de investigación.

Así mismo, tengo derecho:

-A negarme a facilitar esta autorización de forma total o parcial.

-Se me ha informado así mismo de las consecuencias que esta negativa puede tener.

-A ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición ante a la Mancomunidad de Urola Garaia.

Y conforme a todo ello, otorgo libremente el consentimiento conforme a la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y el Reglamento General Europeo de Protección de Datos.

En Urretxu, a.....del 2022

Sinadura/Firma

Esku-hartze integral eta koordinatutako nire datuak markatutako erakundeei lagatzea baimentzen dut:

- ☐ Urola Garaiko Berdintasun Arloa
- ☐ Urola Garaiko udaletako Gizarte Zerbitzuak
- ☐ Osasuna (Osakidetza)
- ☐ Urola Garaiko ikastetxeak
- ☐ Eusko Jaurlaritza Segurtasuna (Ertzaintza)
- ☐ Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politika Departamendua
- ☐ Gipuzkoako Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua
- ☐ SAV Gipuzkoa
- ☐ Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Arloko Epaitegia (Donostia) /Instrukzio Auzitegia
- ☐ Enplegua (Lanbide)
- ☐ Berdintasuna (Emakunde)
- ☐ Arartekoa
- ☐Harrera Etxea
- ☐ Aldundiako Zerbitzu juridikoa:
- ☐ Aldundiako psikologikoa:
- ☐ Aldundiako Haurren Zerbitzua
- ☐ Emakumeen Etxeko laguntza psikologikoa
- ☐ Emakumeen Etxeko laguntza juridikoa
- ☐ SEPE Enplegu Zerbitzu Publikoa
- ☐ Elkarteak
- ☐ .Abokatua
- ☐ Beste zerbitzu batzuk (identifikatu).....

Marco las entidades a las que permito se cedan mis datos personales para una intervención integral y coordinada:

- ☐ Área de Igualdad de Urola Garaia
- ☐ Servicios Sociales Municipales de los ayuntamientos de Urola Garaia
- ☐ Salud (Osakidetza)
- ☐ Centros educativos de Urola Garaia
- ☐ Seguridad del Gobierno Vasco (Ertzaintza)
- ☐ Diputación Foral de Guipuzkoa. Departamento de Política Social
- ☐ Servicio Foral de Urgencias Sociales de Guipuzkoa
- ☐ SAV Gipuzkoa
- ☐ Juzgado de Violencia sobre la mujer (Donostia) /Juzgado de Instrucción
- ☐ Empleo (Lanbide)
- ☐ Igualdad (Emakunde)
- ☐ Ararteko
- ☐ Casa de acogida de....
- ☐ Servicio jurídico Foral:
- ☐ Servicio psicológico Foral:
- ☐ Servicio de Infancia Foral
- ☐ Asistencia psicológica de la Casa de las mujeres
- ☐ Asistencia jurídica de la Casa de las Mujeres
- ☐ SEPE Servicio Público de Empleo
- ☐ Asociación.....
- ☐ Abogada/o.....
- ☐ Otros servicios (identificar)

**BAIMEN INFORMATUA ADINGABEAK
EGONEZ GERO**

Nire alaba/semea 14 urte baino gutxiago izanda, haren ama/tutorea naizen aldetik, baimena ematen dut haren datu pertsonalak biltzeko eta aipatutako erakundeei lagatzeko, eta haiek aipatu ondorioetarako eta helburuetarako tratatzea baimentzen dut.

Eta hórrela jaso dadin, eta bidezko ondorioak izan ditzan, hau sinatu dut.

Data eta emakumearen sinadura

**CONSENTIMIENTO INFORMADO EN CASO
DE PRESENCIA DE MENORES DE EDAD**

Siendo mi hija/o menor de 14 años, doy mi consentimiento como madre/tutora para la recogida de sus datos personales y su cesión a las entidades mencionadas, autorizando el tratamiento de los mismos a efectos y finalidad señalada.

Y para que conste y surta efectos oportunos, firmo la presente.

Fecha y firma

